

Idazleen Alkartea (2)

Juan San Martin-i egin nahi izan dizkiot galdera hauek. Berak proposatu zuen Alkartea hau sortzea, nik dakidanaz lehenengoz, Ermuako Jardunaldi Gogoangarri haietan. Bidezko zati berari galdetzea. Orain beste batzuk daramakite aurrera asmo hori.

Juan San Martin nork ez du ezagutzen? Euskaltzaindiaren sekretario da. Oso langilea.

—«Idazleen Alkartea» hau komeni da ala ez, eta zertarako?

—Idazleen Alkartea bat?, duda gabe. Alkarren anparuen idazleen interesak defenditzeko, alkar ezagutzeko, alkarren hartumanean giro bat egiteko eta literaturan landu behar diren galak eratzeko, eta gariko galak zein diran erabakitze... Alkartasun bat oso komenigarri ikusten dut. Hitz batean, idazleekiko egulkitzen eta problema guziki alkartasunaz planifikatu ahal izateko.

—Alkarrizketa honek ze gal izango luke Alkartea hontan?

—Era askotakoa. Elkarrizketak argia ematen du, esate baterako, garuko joerak zein diran ikusteko. Sail bakoitzean, teknikak diferentiek dira, kasurako poesia eta teatroa egiteko erak. Baina tematika ez da aldatzen, munduak planteatzen du hori garai bakoitzean. Eta bakoitzak heldu behar dio momentuko galari.

Honek ez du esan nahi folklorelanak eta nobela historikoak ezin dituztenik egin. Hori ere egiteko dago, eta biltzeko. Historia-tekstotan nobela historikoa ba da, eta eterrian herri-literatura ba da; edo dauden bildumeri beste orientazio bat eman, literatura aidentik jantziago egin... Etabar.

—Hori dana ondo dago, eta beharrezko da. Baina ba al dago zerbait zuek preminazkoago ikusten dizunua?

—Beharrezkoena: garuko prolektari oratuta sorkunde batera joatea, geure nortasuna hartuko duan literatura-era batera joatea. Zerbait hori lortu dute katalaneek, hango poesiak, nobelak, teatroak ba du izen bat, bereizkitzen bat. Guk ez. Esan liteke, pixkat baino gehiago poesian.

—Alkartea honen helburua zein da? Herriari begira lan egitea, ezta?

—Bai, eta hortarako, nobela labur eta errexak (bestalde mundurik kultuenean egiten diranak) behar ditugu; goragoko maila ere landu behar dugu, itzal bat eta erresponsabilidade bat idazleari emateko; sakakerak etabar: onak diranean traduzitutako lituzkete, eta orduan prestigioa da ondorena. Alkartea onak bide preminazkoenak ikusten salatu beharko du: kultura, esate baterako. Eskoletako tekstoak ere. Behar ditugu ikasteko tekstoak, geometria, jeografia... gorrengo mailetaraino. Eskolek esan behar dute zer behar duten, eta orduan idazleen Alkartek esango du zein dagoan hortarako gertuen, eta horren lanak, espezialidade bakoitzean, «cuerpo redactor» baten orrazapenak hartuko ditu. Beraz, lan hauek, ondo egingo badira, ekipoz egin beharrezkoak diranez, zer hobe proposatzen dugun Alkartea egitea baino?

—Oinarriak zein dira?

—Bi jarriko nituzke nik, bi minimum: bata idaz-neurriena, eta batasun-arauna bestea. Alkartea horren kide izateko idazlanetan minimum bat behar da. Ba da Europako Idazleen Alkartea bat. Etexa, uste dut Italian duela. Honek eskatzen dute literatura-liburu baten egile izatea. Gaurkoz nik eskatuko nuke liburu bat, edo teatro bat, edo sakakerak, edo periodiamuz sakabanaturik egindako lana, chun bat (edo berrehun, berdin da) folio gutxiarik. Eta geroago sartuko diranentzat kondizioak estutxoak izan behar dira: hor sartuko diran guzian kriteriotik sortzen dan euskera motara behartu.

Bigarren oinarriari buruz, batasuna beharrezkoa da. Ortografian, gutxiarik, bestela alferrik gabiltza. Ortografiak, letra batek, ez du hizkuntza kanblatzen. Komeni dana da, denok berdin joatea: edo ezkeretik edo eskubitik. Luis Mitxelena Arantzazun esan zuana: autoko ezkeretik ala eskubitik joan ditzetela berdin da, baina doazela denak berdinetik. Guk ere bat aukeratu behar dugu. Bat hori, zein? Idazleen Alkartek. Arantzazun errekomentatutikoa behartu egin behar du. Euskaltzaindiak ezin du

behartu berak ez du literatura egiten-eta. Asmoetako Alkartea honetarik.

—Planteamendu sakonago bat. Asmoetako Alkartea hau Euskaltzaindiak bere eginbeharra betetzen ez dualako ala eginkizun aparteko eta definitu batekin al dator?

—Nik uste, lehenengo honen beharra idazleak alkartzea. Euskaltzaindian ba dira idazleak ez diranak eta baita idazte izanik Euskaltzainditi kanpora daudenak ere. Galnera, ez Euskaltzaindiari eta gutxiago euskerari, ez zale komeni hizkuntzarekiko guzira Euskaltzaindiak monopolizatzea. Euskaltzaindiarekin, diodanez. Baina nortasuna gorde ere bai: literaturaren batasun-arazoan, esate baterako. Euskaltzaindia makal arkitzen bada, batasunerako ez badu aski funder, idazleek ikusi behar dute, beren aidentik, ea posible duten harutzago joatea. Batasuna, nik, espero dut idazleengandik, irakasleengandik baino lehenago.

—Araozak ikutuz-aztertuz goaz. Azter dezagun orain beste bat. Zure «Escritores euskéricos» liburuan lan inédito asko agertzen da. Idazlea, edozein dala, bere lana argitaratu gabe ikustean, etsipenean herortzen da, eta gutxienez ahaldu eta moteldu egiten da. Gure artean aise egiztat udlekean akatsa. Zergatik gertatzen da hau? Nik uste, argitaldarien planteamendu oker bategatik. Horregatik galdetzen dut ea ez ote litzekane komeni idazleen Alkartea honetako editorialen kooperatiba bat egitea edo editorialen kontrola eramatea, idazlearen promozioari eta eskubideari dago-kionez. Mingarria izango litzakea...?

Baino, bestalde, oso inportante da idazleak bateratuta egotea eta montaje batean, sistema publizitario ta propaganda batean baturik egotea, ez argitaldari bati eman lana, eta zuk ikus esanez, nahi duzuna egin esanez. Idazleen Alkartek bertako idazleen obra ez bakarrik saldu balziz aurrera ateratzeko lan egin behar luke, ezta, Juanito?

—Bai noski, nola ez. Behin Alkarteari estruktura jarriaz gero. Eta gero egingo litzake «cuerpo redactor» eta selezio bat eginaz batorde bat, hauek esan dezatela



Juan San Martin Euskaltzaindiko Billera nagusi batean, elkarte ontako buruzagi dan Lekuona jaunarekin.

zenbateraino ballatu eta indartu behar duten egile baten lana.

—Idazlearen promozioa egiteko biderik onena litzake hau.

—Duda gabe. Promozio hori osoki egiteko lan txar batzuk argitaratu beharko dira. Baina idazle horren 15-gn. obra hobeezago izango da. Eta orduan obra hori ateratzen editorial komertzialak arduratuko dira. José Plé-rekin Katalunian hain zuzen hori gertatu da, bere «Obras completas» egiten ari dira, Katalunia txikia dala hainbeste nobela ateratzeko, nahizta gu baino gehiago izan.

—Alkartea honetako sindikato-erara jokatu behar duala entzun dituz behin baino gehiagotan. Zer adierazi nahi duzue honetara?

—Hau izango da Alkartea horren beste eginkizunetarikoa bat. Sindikato-erara batez ere interes profesionalak defenditzen eskatzen dut %-etik 10-3, gutxiarik, kobratu behar du egileak Hemengo editorialak ez dute ematen. Euskal-idazleek ez daki tufik ere. Sakrifikatzen dana idazlea da betiere, liburuak merkeago saltea egilearen deretxoetatik hartzen dalako. Eta Alkartek eskatu behar duana da: edo libururik ez da ateratzen edo kostatzen dana kostata atera dezala, ez merkeago jartzearen idazleari dirua kenduz.

Beste fenomeno bat desterratzeko ere lan egin behar du Alkartea honetako sindikato-erara: ba daude idazle onak ala ez, baina dirudunak. Argitaldian esaten du euskal-libururik ez duala negoziotik, eta orduan egileak aurreratzen du dirua, beharbada gero jasotzeko (edo ez). Ez dago eskubiderik, beste lan asko argitaratu gabe gertatzen dira, beharbada askoz hobeak, nork diru eman ez dagoalako. Eta harpidedunak pagatu behar du. Horrek euskal literaturari bide txar bat eman dio. Eta orduan Alkartea honetako esijitu egin behar du %-eko 10 hori, eta ezkonideratu hori esijitzen ez duan autore, eta neurri batean eskiltzat hartu. Alkartek jarritako oinarriak betetzen ez ditralako. Beste autore batzuen interesak zapaltzen ditu-eta. Baina berdin aldizkarien aurrean, batez ere komertzialki eraturik dauden artean. Hau da, harpidetza edo salbenta egotik eta anuntzioak dituztenek, artikulu edo horriko honen beste bat hautatuz. Hau bai da lan gehiago eta hobeak egiteko bidea, zeren argitaratzen diran lanak ordaintzera, lanak, argitaratzeko, neurri on bat beharko du, eta idazlea hobeto idaztera bultzatzen duan neurrian, irakurleak gehitza behartuko ditu, eta luzarora aldizkari berentzat ere ongari izango da, baina batez ere euskal literaturarentzat.

—Honekin aski dugu, Juanito. Milesker. Alkartearen asmo hori oso aurreratu dago, ea gauzatua noliz ikus dezakegin.

Joan Mari TORREALDIA



Euskaltzaindiko billera bat on doren, euskal idazle talde bat alkarrizketan.